Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

421

Maiatzak 15, 2022

2 Irun atzo, Irun gaur
3 Berri laburrak
4 Junkal pizzeria
5 Josu Torres
6 Sustraietatik eraldatuz
7 Kirol anitzeko ludoteka
8 Kirolak: Bidasoa
9 Kirolak: Urgara Txingudiko neskak
10 Oiassotik Irunera
11 Maurren lanak / Denbora-pasak
12 Gazteen lanak
13 Beti gazte: Micrisantemo artista
14 iGazte
15 Agenda

Hiriko hormek zeresana dute Micrisantemori esker

- Adinekoentzako Egoitzak
- Mugaz gaineko Eguneko Zentroak, 365 egunez, Irun Hondarribia eta Hendaiarainoko garraio zerbitzuarekin
- Psikogeriatria unitateak
- Apartamenduak

Eta Caser Cuidadosekin, etxean behar dituzun zaintza edo laguntza zerbitzuak kudeatzen dizkizugu

caser residencial

Caser Residencial Anaka
Anaka kalea 8 - Irun

Caser Residencial Betharram
Zubieta kalea 161 - HONDARRIBIA

900 103 348
caseresidencial.es

ZER GERTATU ZEN IRUNEN ORAIN DELA 100 URTE?

1922ko maiatzaren 21ean argitaratutako "El Bidasoa" aldizkaria orain dela mende bat Irunen albiste ziren gertaerak biltzen ditu. Amando Lozanok "Victrix causa" testuan Vigoko futbol txapelketaren laburpena egiten du. Jarraian, Atsegiñ-tar bat kolaboratzaileak "Zer ordu da?" testuan bi emakumeren arteko euskarazko elkarrizketa labur bat kontatzen du, tonu barregarriarekin. Yolek, berriz, "versos románticos" atalean "la última sonrisa" olerkia argitaratzen du. "Nunca hay dicha completa en este mundo" testuan, berriz, futbol txapelketan kopa ez lortzeak hirian eragindako giro ahulaz hitz egiten du, eta hiritarrei animoak eta itxaropena agertzeko eskatzen die, poztasunerako beste arrazoi batzuk emanez. Lehen orrialdearen amaieran Enrique Garcia Porresen heriotza jakinarazten da.

Ohi baino zabalagoa den kirol kronikan, Vigon Bartzelonaren aurka Real Unionek jokatutako partiduaren xehetasun guztiak ematen dira. Partiduko jokaldi aipagarrienak errepasatzeaz gain, futbolzale irundarren bizipenak biltzen ditu. Vigoko norgehiagokaren nondik norako guztiak aipatu ostean, aldizkaria argitaratzen den egun berean Belgikako taldeak Amuteko zelaian jokatuko duen partidua aipatzen da.

Hirugarren orrialdean, "El Bidasoa" aldizkaria amaitu aurreko azken idatziak irakur daitezke. Besteak beste, Juncal parrokian egitekoak diren hurrengo ekitaldi erlijiosoen berri ematen da. Ondoren, Zaragueta farmazia berriaren irekiera jakinarazten da, denda berriaren kokapena eta eskainitako zerbitzuak zehaztuz. Azkenik, "Noticias" atalean Guardiako farmaziak zeintzuk diren jakinarazten da. Gainera, Real Union kluba omentzeko maiatzaren 28an egingo den ekitaldiaren berri ematen da.

Argazkiak:

29323: Juncal Parrokiaren antzinako irudia.

29128: Irungo San Estanislao ikastetxeko ikasle taldea irakaslearekin.

61674: Fermín Zaragüetaren erretratua bere farmazian (1973).

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:
Ainara Berges
erredakzioa@irunero.eus
irunero@irunero.eus

Administrazioa:
Joseba Arozena

Zuzenketa:
Aitor Lete

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:
Andrea Gomez Arocena

Inprenta:
ZEROA MULTIMEDIA S.A.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hirugarren aldiz Gipuzkoako Wordpress ekitaldi ofizial nagusia Irunen egingo da

Maiatzaren 21ean eta 22an Irunen WordCamp Irun 2022 ekitaldia egingo da Palmera Montero Gunean. Guztira, web industriari eta WordPress eduki kudeatzaileari buruzko hogei hitzaldi ere emango dira. Irungo Udalaren, Mondragon Unibertsitatearen eta mundu osoko hogei bat babesleren laguntzari esker antolatu da WordCamp Irunen hirugarren edizioa.

Wordpress munduan gehien erabiltzen den eduki kudeatzailea da. Espainiako webguneen % 65 baino gehiago eta mundu osokoen % 43 sistema horren bidez kudeatzen dira. WordPress web edukien kudeatzailearen arrakasta geldiezina da; handiagoa urtetik urtera mundu osoan eta, bereziki, Espainian. Kode irekiko sistema da WordPress, hainbat funtzionalitate eta hazkunde aukera eskaintzen ditu, eta doakoa da: horixe da onena, eta horregatik erabiltzen dute milioika web editorek. WordPress komunitatea osatzen duten kideen lan eskuzabalari esker, izugarrizko potentzialtasuna du.

Ekitaldia egitearekin batera, sistemaren 6.0 bertsioa argitaratuko da, eta bertsio berriak mundu osoko erabiltzaileek aspaldi eskatutako aldaketak ekartzea espero da, hala nola webguneak osorik editatu ahal izateko aukera. Ekitaldiaren lehenengo egunaren bukaeran, larunbatarekin, WordPress kudeatzaileak merkataritza txikiari egin diezaiokeen ekarpenari buruzko eztabaida txiki bat izango da.

WordCamp Irun 2022 jardunaldiak irauten duen bi egunetan, gaur-gaurko txosten interesgarriak aurkeztuko dira: online negozioak, marketing digitala, sare sozialak, eduki estrategiak eta SEO posizionamendua, web diseinua eta garapena, etab.

Miguel Ángel Páez ordezkariak ekimena zer berritzailea den nabarmendu du, eta eskerrak eman dizkie ekitaldiaren sustatzaileei, "WordCamp Irunera bueltan ekartzeagatik eta ekitaldi handia bilakatzeagatik, gaian interesa duen jende asko erakarriko baitu seguru asko, direla zaleak, direla alor honetan profesionalki diharduten pertsonak". Alkateordeak erantsi du, "pixkana-pixkana, pandemiaren ondorioz orain arte nekez gauzatu genitzakeen jarduerak gauzatzen hasi gara, eta topaketa hau berriro ere Palmera Montero Gunean egitea oso albiste ona da, eta poza eta ilusioa pizten du aurrera begira".

Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak mugaz gaindiko mugikortasunaren webgune berria aurkeztu du

Irun, Hondarribia eta Hendaiako Udalek, Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren bitartez, hainbat ekimen garatu dituzte SMARTMOB proiektu komunaren esparruan, mugaz gaindiko mugikortasunak dituen erronkei aurre egiteko helburuarekin.

Miguel Angel Paez Partzuergoko Zuzendaritza Batzordeko presidenteak eta Irungo Udaleko alkateordeak adierazi du, "SMARTMOBren helburu nagusia Bidasoa Sud Pays Basque mugaz gaindiko lurraldean pertsonen mugikortasun iraunkorra eta adimenduna sustatzea da".

Transfermuga aztelanaren bitartez frogatu zen Hendaia, Irun eta Hondarribia arteko joan-etorrien % 90 kotxez egiten direla eta biztanleriak ez duela mugaz gaindiko mugikortasun eskaintzari buruzko ezagutza gehiegirik.

Testuinguru horretan, Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoak ekimen honen sustatzailea, Syndicat des Mobilités Pays Basque - Adour, Hendaiako Udala eta Irungo Udalarekin batera; eta Akitania Berria – Euskadi – Nafarroa euroeskualdea, Hondarribiko Udala eta Donibane Lohizuneko Udala ekimenari lotutako erakunde gisa, elkarrekin lan egin dute hainbat ekintza egiteko. Horien artean, lurraldeko garraio-sareen mapa komun bat sortu dute, mugaz gaindiko mugikortasun webgune berri batean integratzeko.

Webgune honek lurraldearen mapa erakusten du eta klik batez Donibane Lohizunerainoko garraio lineen eskemara jo daiteke eta informazioa zabaldu 8 atal hauen bidez: Garraio publikoa, aparkalekuak, bidegorriak eta oinezkoentzako bideak, eskaripeko garraioak, intereseko lekuak, dokumentuak, Smartmob eta ibilbidea kalkulatzeko aukera. Gainera, komunikazio kanpaina bat egingo da hiru lurraldeetan maiatzetik aurrera. Besteak beste, sare sozialetan eta webguneetan zabaltzea, hiru hirietako markesinetan eta hainbat interesgunetan kartelak jartzea.

Mugaz gaindiko mugikortasun mapa

Mugikortasun-mapa honek lehen bertsio berezia izan zuen 2019ko udaran. Bertan, udalerri bakoitzean zein udalerrien artean oinez, bizikletaz eta garraio arruntean mugitzeko dauden aukerei buruzko informazioa ematen die herritarrei eta turistei. Berriki eguneratutako planoaren alde batean, hiru hizkuntza ofizialetan, Irun, Hondarribia eta Hendaia zeharkatzen eta lotzen dituen garraio-sarearen eskema bat agertzen da, baita Donibane Lohizunera eta Donostiara doazen lineak ere. Planoaren beste aldean, Irun, Hondarribia eta Hendaiako udalerrien arteko perimetroa jasotzen duen kale-mapa bat dago, eta, Urrugne eta Biratou udalerrien zati bat ere agertzen da Behobiarekin duten loturan.

Egungo errealitatera egokitzeko eta herritarrentzako informazioaren digitalizazioa sustatzeko, dokumentu hau mugaz gaindiko mugikortasunaren webgune berrian txertatu da, irudi nagusi gisa eta deskargatzeko dokumentu gisa.

20 URTE
ANTXETA
IRRATIA
90.5 / 89.7 FM

olaizola
INMOBILIARIA AGENTZIA
Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza
Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Jesús Lozano, Pizzeria Junkaleko jabea:

“Kritikak, oro har, oso onak izan dira, eta jendeak dio gure pizzak gustatu zaizkiola”

Duela bi astetik hona, Irungo Santiago kalean usain desberdina dago. Usaina 41. zenbakiko establezimendu berritik dator. Junkal pizzeriak aste pare bat baino ez daramatza bere zerbitzuak eskaintzen, eta dagoeneko hainbat dira produktu italiar aski ezagun honen zaporeak harrapatuta esperientzia errepikatzea erabaki dutenak. Jesus Lozano Junkal pizzeriako jabeak azaldu du pizzak egur-labean egiteak produktuari ukitu berezia ematen diola.

Nola izan dira negozioa ireki ondorengo lehen bi aste hauek?
Egia esan, dena oso ondo joan da. Oso pozik gaude azkenean gure negozioa ireki ahal izan dugulako. Harrera ona izan dugu eta jendearen erantzuna ona izan da momentuz.

Zergatik erabaki zenuten Irunen pizzeria berri bat irekitzeko abenturan sartzea?
Ni elikaduraren mundutik nator. Nire esperientzia profesionala oso lotuta egon da okindegi, gozotegi lantegi eta elikagaien manipulazioarekin. Txarkuteria eta okindegietan lan egin dut. Egia beti gustatu izan zait honekin zerikusia duen guztia. Etxean pixkanaka nire zaletasuna garatzen joan naiz. Egia esan, pizzaren mundua okindegiaren eta urdaitegiaren arteko zerbait da. Horregatik animatzen nau proiektu hau aurrera eramatera, espezializatzen saiatuz. Horretarako, kalitatezko produktuen eta hartzitze-prozesu geldoen aldeko apustua egin dut.

Aurreko esperientziak lagundu al dizu negozio berri hau irekitzen?
Egia da nik esperientzia pixka bat banuela, baina horrelako ikastaro bat egiten duzunean argi dago askoz gauza gehiago ikasten dituzula. Era berean, argi dago nik egindako ikastaro berezitua bezalako ikastaro bat aldez aurretik egiteak lagundu egiten dizula lokal berri baten irekieraren nerbioak kontrolatzen, eta segurtasuna ematen dizula.

Zein izan dira irekieraren ondorengo lehen balorazioak?
Kritikak, oro har, oso onak izan dira, eta jendeak dio gure pizzak gustatu zaizkiola. Errepikatu duen jendea ere izan dugu, eta horrek esan nahi du asko gustatu zaiela.

Osagaien kalitatea garrantzitsua da?
Kalitate handiko produktuek ez dute azken emaitza bermatzen, baina egia da horretan laguntzen dutela. Guk irin onak erabiltzen ditugu, harrian ehotuak. Mozzarella bezalako lehengaietan ere nabaritzen da kalitatea. Guk flor di late mozzarella erabiltzen dugu, % 100 esnez eginda. Erabiltzen dugun tomatea ere kalitate handikoa da, garrantzitsua iruditzen zaigulako oinarria kalitate bikainekoa izatea.

“Guk benetan uste dugu oso produktu goxoa egiten dugula”

Zuen ezaugarri bereizienetako bat da pizzak egur-labean egiten direla?
Bai, hau guztia gainerakoengandik bereizi eta gure pizzei beste ukitu bat eman nahi izateagatik dator. Lehia handiko sektorea da. Egur-labeak beste egosketa bat eta beste tenperatura batzuk ematen ditu. Hori guztia emaitzan nabaritzen da, pizzaren testura desberdina baita. Nire ustez, horri esker, hain harrera ona izaten ari gara hirian, osagaiak, prozesua eta egosketa asko zaintzen ditugulako.

Oraingoz, bilketa-zerbitzua baino ez duzue eskaintzen lokalean. Erdigunetik gertu egotea garrantzitsua izango da horretarako, ezta?
Bai, asmoa da lehenengo negozioa ondo finkatzea. Pausoz pauso joan nahi dugu, presarik gabe. Printzipioz, pizzak lokalean jaso ahal izatea da asmoa, baina dena ondo badoa, gure produktuez gozatzeko beste zerbitzu batzuk eskaintzeko aukera aztertuko dugu. Santiago kalea joan-etorri handiko kalea da, eta egunero jende asko pasatzen da hemendik. Etengabeko mugimendu horrek asko laguntzen digu jendeak ezagut gaitzan, gure negozioaren berri izan dezan eta non gauden jakin dezan. Oraingoz, badirudi jendea ados dagoela gure lan egiteko moduarekin, eta ez zaiola hainbeste axola gure lokalera etorri behar izatea enkargua jasotzera.

Horrelako establezimendu berriak irekitzeak Irungo bizitza komertziala sustatzen laguntzen dutela uste duzu?
Bai, jendeak hori nabaritzen eta eskertzen du. Hiriko bizitza pixka bat sustatzen duen edozein negozio mota beti ongi hartuko dela uste dut. Nahiz eta gure estiloko zerbait ez izan edo guk kontsumitu ez arren, nik uste dut eskertzen dela auzo edo hiri aktibo batean bizitzea. Azken batean, horri guztiari eta lokal berri bat irekitzeari esker, jende gehiago animatu daiteke pausoa ematera.

Oraindik zuen pizzak probatzera animatu ez den jendeari zer mezu bidaltzen diozu?
Esan diezaiekegun gauza bakarra da probatzera animatzea eta beraiek ikustea gustatzen zaien ala ez. Guk benetan uste dugu oso produktu goxoa egiten dugula. Bezero berriei jakin-min handia sortzen die irin ekologikoekin aritzeak. Oso produktu aberatsa da eta mesedegarria gorputzarentzat; primerakoa dela esango nuke. Jakina, maitasun guztiarekin egina dago.

all4móvil
LORTU TARIFARIK ONENA TELEFONIA MUGIKORREAN, FINKOAN, INTERNETEN ETA TELEBISTAN
PREZIOAK KONPARATUKO DITUGU ZURE ORDEZ!
www.all4movil.com
Puiana kaleko 30, zenbakian gaude!
652 11 85 97 / 843 63 08 80
all4movil@all4movil.com

Josu Torres, poesia idazlea:

“Uste dut poesiak sentimendua, askatasuna eta bihotza izan behar duela”

Argazkia: Estudio Gover

Josu Torres poesia idazleak bere bigarren liburua argitaratu du “Cien poemas sin rima”. Liburua Irungo Liburu Azokan aurkeztu zuen eta bertan irakurleekin irtziak partekatzeko aukera izan zuen. Josu Torresek poesia idazten nola hasi zen azaldu du.

Nolakoa izan zen Irungo liburu azokan idazle gisa parte hartzeko esperientzia?
Egia esan, oso esperientzia polita eta oso positiboa izan zen. Niretzat liburu azoken mundua ezezaguna zen. Hau izan da nire lehen esperientzia eta oso harrituta nago. Oskarbiko elkarteko kideekin standa partekatu dut eta horrek orain arte ezagutzen ez nuen jendea ezagutzeko aukera eman dit. Jendearekiko harremana ere oso ondo joan da, eta ez dut kexarik.

Liburuaren azoka batean parte hartzea berezia bada, bizi zaren hiriko azokan parte hartzea oraindik bereziagoa da?
Uste dut garrantzitsua dela egile batzuek besteak elikatzea, eta horrelako ekintzek gure eskualdean eta bizi garen hirian ezagutarazten laguntzen digute.

Aberasgarria izan da zure irakurleekin zuzenean hitz egin ahal izatea?
Bai, zalantzarik gabe. Nik 2019an argitaratu nuen nire lehen liburua, eta soberan geratu zitzaizkidan ale apurrak azokara eramatea erabaki nuen. Harrituta nago jende askok esan zidalako hori irakurria zutela eta orain bigarrena erosi nahi zutela. Ez nuen uste irakurleekiko kontaktu hori hain polita izan zitekeenik.

Zure bigarren liburua, “Cien poemas sin rima”, han bertan aurkeztu zenuen. Zer moduz?
Bai. Aurkezpena igande goizean izan zen eta Dory Lansorena nire lankideak lagundu zidan. Oso pozik nago aurkezpenak izan zuen harrerarekin. Agian eguraldiak ez zuen asko lagundu eta horrek publiko pixka bat kendu zigun egun horretako aurkezpen guztiei. Oso pozik nago azaldu nuenarekin eta bertan esandakoarekin.

Errazagoa egin zaizu bigarren liburu hau argitaratzea?
Beno, ez da erraza izan. Gaur egun, oraindik ere, badirudi poesiak literaturaren anaia pobrea izaten jarraitzen duela, eta hau nekez aldatu daitekeela. Logikoki, nik autoeditatzen ditut liburuak, ez baitaukat inork editatuko dizkidanik. Zorionez, arrebak inprimategi bat dauka eta berak egiten dit liburua. Familiaren lankidetza ere badut, senideek azala, argazkiak edo diseinua prestatzen laguntzen didatelako. Lehenengoa zailagoa izan zen niretzat mundu guztiz berria zelako. Bigarrenarentzat dena pixka bat ezagutzen nuen eta horrek lagundu egiten du oraingoan promozioa pixka bat hobea izan dadin.

Zergatik erabaki zenuen liburuari titulu hori jartzea?
Jakina, liburuak errimak ere baditu, hori saihestezina da. Niri asko gustatzen zait bertso librea, eta, bestela, errimak mugatzen gaitu, pixka bat baldintzatzen gaituzten parametroekin. Uste dut poesiak sentimendua, askatasuna eta bihotza izan behar duela. Bestearekin ezkonduko den hitz bat bilatu behar duzu, eta nire kasuan horrek grazia apur bat galtzea eragiten du. Katerik gabe eta kortserik gabe bere hunkiberatasuna baldintzatzen ez duen poesia gustatzen zait.

Presiorik sentitu duzu bigarren liburua lehenengoa bezain arrakastatsua izatea nahi zenuelako?
Denbora guzti honetan gauza bat ikasi dut. Kontua da norbera pozik geratzea bere liburuaren emaitzarekin. Gainera, irakurtzen duen jendeari gustatzen bazaio, zoragarria da. Egia esan, nire bigarren lan honek lehen lanak baino askoz ere gusturago utzi nau. Gainera, bat dator irakurtzen ari den jendeari asko gustatu izanarekin, beraz, bi helburuak bete dira eta bide onetik doa.

Nola izan da sortze-prozesua?
Bigarren liburu hau osorik idatzi nuen 2020an, pandemiaren eta konfinamenduen ondorioz guztiok lotzen gaituen urte berezian. Niri asko baldintzatu ninduen maila sozial eta pertsonalean, justu aita hil baitzitzaidan. Gainera, adinekoekin eta arazo mentalak dituztenekin egiten dut lan egoitza batean, eta oso urte zaila izan da. Prozesua oso bizia izan da, bizipen askoko urtea izan baita. Liburuaren barruan nire bizitzaren eta bihotzaren zati txiki bat dago, urte hartan bizitako guztiagatik.

Noiz hasi zinen poesiarekiko zaletzen?
Poesia oso gaztea naizenetik gustatzen zait. Nire lehen lotura kantautoreen bidez izan zen, asko poetak baitira eta poesia musikatua egiten baitute. Serrat, Aute, Silvio Rodríguez edo Ismael Serrano entzuten nituen. Ni oso identifikatuta sentitzen nintzen haiek esaten zutenarekin, eta banekien ez nintzela kantatzeko gai izango, baina nire sentimenduak transmititu nahi nituen.

Uste duzu egun poesiarekiko zaletasuna handitzen ari dela?
Alde batetik, uste dut poesia azkenaldian hazten ari dela eta zaletasun pixka bat gehiago dagoela. Liburu azokan ere jakin dut jende askori beldurra ematen diola poesia irakurtzeak, ez ulertzeko beldurrez. Espero dut hazteko joera horri eustea. Poesiaren alde ona da ez zaudela 50 orrialde bat-batean irakurtzera behartuta, oso testu laburrak baitira.

Non lor daiteke liburua?
Donostian Lagun eta Garazi liburu dendetan dago. Irunen Los Encantosen, Patri liburu dendan eta Txoko Txikin eros daiteke. Era berean, zuzenean nirekin harremanetan jarrita ere lor daiteke, Facebooken edo Instagramen bidez, nire profiletan: Josu Torres Martínez.

Liburu berri batean ari zara lanean?
Orain bigarren liburu hau garatzen eta sustatzen ari naiz. Hirugarren batean pentsatzen ari naiz eta oraingoan zerbait desberdina izatea nahi dut. Zerbait bereziagoa eta pertsonalagoa lortu nahi dut, aurreko biak apur bat hautsiko dituena. Indartsuagoa izatea nahi dut.

22 Academy
22academybaile.com 943 50 98 94
HAMAIKA
Hobeto bizitzeko irtenbideak ZURE ETXEA ERAIKIZ
hamaika.com (+34) 943 64 64 12
TXINTXO
Hurbildu zaitez gure pintxoak probatzera
943 10 33 56
Dario de Regoyos Kalea, Irun

Parean elkartearen hitzaldi zikloak haur literaturaren sustraietan berdintasuna txertatu nahi du

Jakina da haurren artean irakurzaletasuna sustatzeko beharra. Zeregin horretan, ordea, denak ez du balio. Izan ere, haurren iruditegiaren eraikuntzan eragin zuzena dute liburuetan jasotako mezuek, irudiek eta balioek. Parean elkarteak haur literaturaren sustraietan arakatzeko proiektua jarri du martxan, txikiek eskuratzen duten literatura eskaintza kalitatezkoa eta aproposa izan dadin.

Ipuinak, pertsonen barruan islatzeaz gain, inguruko gizartearen ispilu dira. Are gehiago, jendartearen balioak, jarrerak eta ezagutzak lerroetan bildu eta zabaltzeko modua dira. Ildo horretatik Parean elkarteak hiru ikasturte daramatza "Sustraietatik eraldatuz, berdintasuna errotzen" proiektua garatzen. Oraingoan helburua da hitzaldi ziklo baten bitartez haur literaturari buruzko hitzaldi zikloa antolatzea.

Lehen saioa maiatzaren 11n egingo da Donostiako Gros auzoan dagoen Tobbaco Days liburu dendan. Bertan haur literaturako Lur Gallastegi Zendegi idazlearekin solasaldia izango dugu 18:30etatik aurrera.

Maiatzaren 26an, Ainara Azpiazu, Axpi, euskal ilustratzaile, komikigile eta muralgilearekin marraztuz haur eta gazte literaturan generoak joka dezakeen paperaren inguruan hausnartzea da asmoa. Hitzordua Errenteriako Lekuona Fabrikan izango da eta 8 eta 13 urte arteko gaztetxoentzat zuzendutako ilustrazio saioa izango da. Saioa 17:30etan abiatuko da eta aurrez izena eman beharko da.

Ekainaren 10ean, Oiartzungo udal liburutegian, ipuin kontalari, musikoterapeuta, musika irakasle eta aldi berean musikaria den Haizea Loira Matxiñenaren eskutik "Berdintasunari konta eta kanta" saioa eskainiko da, 7 urtetik gorako haurrei eskainia. Hitzordua arratsaldeko 17:30etan izango da.

Ekainaren 21ean, Irungo CBA liburutegian argitaletxeen txanda izango da. Hitzordua 19:00etan izango da eta Pamiela-Kalandrakako haur literaturako arduradun Carmen Elvira eta Alberdania argitaletxeko Jorge Giménez Bech izango dira hizlari lanetan.

Ikerketatik ekintzetara

Ikerketako emaitzak ezagututa, kritika konstruktibo bat egin nahian, Donostiako Katakrak liburu dendarekin, ipuin sexisten gida osatu zuten Parean elkarteko kideek. Liburuen zerrenda liburuxka formatuan argitaratu zuten eta sare sozialen bitartez zabalpena eman zitzaion. Liburuxka ere Parean elkartearen webgunean kontsultatu daiteke formatu interaktiboan. Izan ere, irakurleek gidara gehitzeko proposamen interesgarririk izanez gero, webguneko formularioa bete eta elkartearen oniritzia jaso ostean ipuin zerrendara gehituko da.

2021ean, berriz, ikerketaren ondorioak Irungo eskola publikoetako irakasleekin partekatu zituen elkarteak. Hausnarketarako espazio bat sortu zen irakasle mintegiekin egindako bileren bitartez. "Irakasleek asko eskertu digute tailer horren antolaketa", adierazi du Miren Lantzek. Parean elkarteko kideak gehitu duenez, haurren liburuak aukeratzeko orduan ere feminismoaren betaurreko moreak "janztea" beharrezkoa da, ipuinak oso tresna baliagarria baitira pedagogikoki, irudimena lantzeko, mundua ezagutzeko eta haurrek haien etorkizuna nola irudikatzen duten ikusten laguntzeko.

Ondorioak eskuartean edukita, Parean elkartearen hurrengo erronka haur literaturaren industrian zuzenean parte hartzen duten egileen eta agenteen artean hausnarketa prozesu bat irekitzea da. Hori, azken batean, haur literaturaren baitan generoaren gaia lantzeak duen garrantzia gizarteratzea da, eztabaida eta kezka gizarteko beste esparrutara zabalduz. Lanketa hori herritarrentzat irekiak izango diren saio ezberdinen bitartez egingo da. Miren Lantzen hitzetan, "jardunaldi hauen bitartez aztertu nahi dugu ea ipuin baten sorkuntza prozesuan parte hartzen duten eragileak zein puntutaraino ari diren genero ikuspegia aintzat hartzen."

Eguzkitzako liburutegia aztergai

Liburuek irudimena eta jakin-mina pizten dutela jakinda, etorkizuneko belaunaldien heziketan zuzenean eragiteko tresnatzat ulertzen ditu Parean elkarteak. Horregatik, haur literaturak genero berdintasunaren eraikuntzan nola eragiten duen ezagutzeko asmoarekin ikerketa abiatu zuen Parean elkartean orain dela bi urte. Azterketa egiteko Irungo Haur eta Lehen Hezkuntzako Irungo Eguzkitza ikastetxeko liburutegiaren eskaintza ikertu zuten pandemiaren hasieran. Guztira, liburutegian katalogatutako 4.000 liburuetatik 400 liburu aztertu ziren, hau da, % 10eko lagina hartu zuten, baina liburuak eta abar kontuan hartuta, ia liburutegiaren laurdena.
Miren Lantzek azaldu duenez, "azterketak tamalez gure susmoak ziurtatu zituen". Genero-ikuspegia abiapuntu hartuta, Parean elkarteko kideek zenbait ondorio kezkagarri atera zituzten, azterketa abiatua aurreko hainbat hipotesi baieztatuz. Azterketak agerian utzi zuen haurrek eskolan eskuragarri dituzten liburuen artean mutil protagonistak gehiago direla, zehazki, % 62an. Era berean, eskainitako liburuen idazleak gizonak dira.

Alabaina, oharkabean, edo ez, ipuinetan betikotu beharko ez liratekeen ereduak ageri dira, hain egokiak ez diren balio eta jarrerak erreproduzituz. Esaterako, ikerketak erakutsi duenez istorio askok sarriegi estereotipo sexistak erreproduzitzen dituzte, izan ere, aztertutako ipuinen % 13an baino ez dira ageri emakumeak zaintzan ez den bestelako rol batean. Lan egiten ageri direnean, irakasle edo dendari lanetan baino ez dira ageri. Beraz, zaintzaren zama emakumeen esku ageri da liburu gehientsuenetan eta familia eredu tradizionala nagusi da oraindik, kultur aniztasunari lekurik utzi gabe.

Pareanek gauzatutako ikerketaren emaitzak elkartearen webgunean kontsultatu daitezke. Era berean, Miren Lantzek azpimarratu du, ikerketaren datuei erreparatzerakoan kontuan hartu behar dela ikerketa eskola publiko baten liburutegian egin dela. "Jakina da eskoletako liburutegien katalogoa askotan edizio zaharrekin edo dohaintzan emandako liburuekin osatzen dela". Hala ere, ez da ahaztu behar horiek direla irakurri nahi duten haurrek eskolan eskura dituzten liburuak.

Parean elkartetik, ordea, oraindik ez dute proiektuaren amaiera hurbilegi ikusten. Hitzaldi zikloa amaituta, eta bertan bildutako ondorioak zabaltzeko helburuarekin, literatura festa bat antolatzeko asmoa dute, ziurrenik Irunen egingo dena. Xehetasun horiek, berriz, aurrerago jakinaraziko dituzte elkartetik.

Kirol anitzeko ludoteka proposatzen dute Kaierrek eta Mayumik

Kaier akademiak eta Mayumi judo klubak kirol anitzeko ludoteka bateratua proposatzen dute aurtengo udararako. Ludoteka uztaileko hilabetean zehar egingo da eta 4 eta 12 urte bitarteko haurrentzat pentsatuta dago. Haurrak talde txikitan banatuko dira ekintzak beren adinetara egokitzea errazagoa izan dadin. Puiana auzoan kokatutako Mayumi judo kluba izango da bilgunea, baina jarduera gehienak kalean eta beste instalazio batzuetan egingo dira. Lorena Agotek eta Iñaki Roderok azaldu dituzte proiektuaren xehetasunak.

Zergatik elkartu zarete uda honetan ludoteka bat antolatzeko?
Iñaki: Biok urte batzuk daramatzagu ludotekak eta kirol anitzeko jarduerak antolatzen. Lorenak denbora bat darama gurekin judoa praktikatzen eta aurreko urteetan Kaierreko ikasleak gurera etorri izan dira judoa praktikatzera. Aurreko urteetan oso ondo moldatu garela ikusita, eta lan egiteko moduan bat gatozenez, zerbait bateratua sortzea bururatu zitzaigun.

Proiektu bateratu honetan, bakoitzak ekarpen desberdina egiten du. Kaierrek, adibidez, esperientzia akademiko handia du?
Lorena: Argi dago gure indargunea alderdi akademikoa dela, baina, batez ere, haurren motibazioa sustatzea interesatzen zaigu, eta hori lortzeko edozein modu ondo iruditzen zaigu. Beti saiatu izan gara gure ludotekaren bidez ahalik eta zerbitzu osoena eskaintzen; horregatik, beti osatu izan dugu judoarekin edo antzeko jarduerekin.

Mayumin, ordea, kirol esperientzia zabalagoa duzue?
Iñaki: Guk judoaren ikuspegi nahiko berezia dugu. Guk judoa egiten dugu, baina judoa tresna hezitzaile edo pedagogiko gisa erabiltzen dugu. Judoak egunero balio izatea nahi dugu, eskolan ondo joan dakien edo pertsona gisa hazteko. Askotan, tresna terapeutikoa izan daiteke, era guztietako zailtasunei aurre egiten dieten neska-mutilak dauzkagulako. Kasu horietan, judoak katalizatzaile gisa balio du arazo horiek guztiak lantzeko, gurasoekin edo irakasleekin batera. Guk judoarekin babesten ditugu, izan ere, azken helburua kirol jarduera soil bat izatea da, eta ez garrantzitsuena dominak lortzea edo lehiaketak egitea helburu duen kirol bat.

Aurreko esperientzia lagungarri al zaizue jarduera berri hau prestatzeko?
Iñaki: Esperientzia handia dugu ume-talde handiak kudeatzen, haiekin hemen edo eskolan lan egiten ohituta baikaude. Lan horrek zerbait antolatzeko beharrezkoa baino gehiago den ezagutza ematen dizu. Mayumiren kasuan, gainera, urteak daramatzagu ludotekak antolatzen, eta orain formatu berri horrek funtzionatzen duela ikusiko dugu.

Lorena: Guk duela 8 urte sortu genuen akademia, eta ludotekak antolatzen ere esperientzia dugu aurretik.

Erraza al da alderdi akademikoa kirol-arloarekin lotzea?
Lorena: gai akademikoa edozein esparrutan aplikatzen dugu. Gure ustez, denetik ikas daiteke zerbait, eta kirola, zalantzarik gabe, tresna handia da horretarako.

Iñaki: garrantzitsua da metodologia bat jarraitzea eta helburu zehatz bat izatea. Kaierrek esparru hori indartzeko ematen duen laguntza oso ondo datorkigu, nahiz eta aurretik ere esperientzia badugun arlo horren lanketan.

Zergatik erabaki duzue kirol anitzeko ludoteka bat antolatzea?
Iñaki: Guk urtean zehar judora jotzen dugu. Denok dakigu beste masa-kirol batzuk ere badaudela, adibidez, futbola, eta gure ideia da gure klubaren bidez jendeak ezagutzea hain jendetsuak ez diren beste kirol mota batzuk. Asko gustatzen zaigu kanpoan egiten diren kirolak sustatzea, nahiz eta judoa barrualdean egiten den kirola izan. Horregatik, ludotekan aire zabaleko jarduerak sustatzen saiatuko gara.

Nahi dutenek laguntza akademikoa jaso ahal izango dute?
Lorena: bai, aukera hori eskainiko dugu, baina ez dakigu jendeak aukeratuko ote duen. Badakigu askotan haur batzuek ikasturtea zailtasunekin amaitzen dutela eta udan errefortzuak lagundu diezaiekeela hurrengo ikasturtearen hasiera hobeto eramaten. Horregatik, errefortzu lanak ekartzeko eta gurekin egiteko aukera eskaini nahi diegu.

Iñaki: garrantzitsua da azpimarratzea orokorrean beste hizkuntza batzuk indartzen saiatuko garela, hala nola euskara edo ingelesa. Guraso askori interesatzen zaie beraiekin jarrera edo arreta lantzea.

Non egingo dira jarduerak?
Iñaki: Mayumi judo-kluba ezarri dugu elkargune gisa, eta jarduera batzuk bertan egingo dira. Espazio zabala eta balioanitza dugu, tatami bat izateaz gain, aretoa beste mota bateko jarduerak egiteko ere egokitu baitaiteke. Hala ere, aire zabalean ahalik eta jarduera gehien egiten saiatuko gara, oso garrantzitsua iruditzen baitzaigu haurrek kanpoan denbora asko igarotzea, ikasturtean zehar denbora asko pasatzen baitute ikasgeletan itxita.

Non eman dezakete izena interesdunek?
Lorena: aipatu dugun informazio guztia gure webguneann aurkituko duzue. Webgunea www.ludotekamultideporte.com da.

Zergatik uste duzue jarduera interesgarria izan daitekeela etxeko txikienentzat?
Iñaki: Arestian aipatutako guztiagatik. Batez ere uste dugu erabiltzen dugun metodologia oso erakargarria dela. Gainera, jardueren eskaintza askotarikoa denez, egunero gutxienez kalitatezko jarduera bat egiten saiatzen gara, haurrei ekarpen berezia egingo diena. Asko axola digu jardueren kalitateak eta kantitateak.

Urgara Txingudiko neskek Euskal Herriko Kopako hirugarren postuarekin itxiko dute denboraldia

Pasa den otsailean Urgara Txingudi waterpolo klubeko emakumezkoen senior taldeak Euskal Herriko Kopan hirugarren postuan sailkatzea lortu zuen. Claudia Aginagalde eta Amane Area taldekideek nesken azken lorpenen errepasoa egin dute.

Pozik zaudete Euskal Herriko kopan lortutako emaitzekin?
Claudia: Entrenamenduetan partiduak irabazi ahal izateko lan handia egin dugu. Egindako lan guztiaren ostean garaipena lortzen duzunean ilusio handia egiten dizu.

Amane: Bai, gainera kontuan izan behar da waterpoloa talde kirol bat dela eta, beraz, zerbait irabazten duzunean poztasuna zure taldekideekin partekatzea oso polita izaten da.

Denboraldi ona egin ostean, Euskal Herriko Kopa jokatzeko aukera opari moduan jaso duzue?
Amane: Bai, hori da. Aurten klub berri batean jokatzen ari gara, taldea ere berria da, beraz, hirugarren postu hori lortzea oso sari berezia izan zen taldeak urte osoan zehar egindako lanarentzat. Lorpenak gure motibazioa areagotu du.

Claudia: Bai, Amanek ondo esan duen moduan, azken batean, hau gure lehen urtea da Urgara Txingudi klubaren barruan eta uste dugu garaipena klubari ikusgarritasuna emateko baliagarria izan daitekeela.

Garaipenak klubari bere bigarren urtean aurrera jarraitzeko indarra emango diola uste duzu?
Claudia: Klub berri bat sortu dugu, beraz, pentsatzen dugu Urgararen hasieran jada titulu hau izatea lagungarria izan daitekeela.

Amane: Orain klubaren helburu nagusiak egun dauzkagun taldeak egonkortzea da, hazten jarraitzea eta aurrera egitea.

Nola ikusi zenuten zuen taldea txapelketetan?
Claudia: Askartza klubaren aurkako partiduak beti gogorrak izaten dira, talde indartsua baita. Beti azken minutura arte borrokatu behar dugu. Kasu honetan partidua oso berdindua egon zen, azken tartean haiek abantaila hartu zuten arren.

Amane: Partiduaren amaieran nabaritu genuen gure urte honetako entrenamenduak ez zeudela aurreko urtekoen mailan eta horrek azken emaitzan eragina izan zuen.

Hirugarren eta laugarren postua Sestaoren aurka borrokatu zenuten. Garaile izatea lortu zenuten?
Amane: Azken momentuan Sestao markagailuan hurbildu zitzaigun eta beldur apur bat izan genuen, jakin bagenekielako garaipen horrek zeukan garrantzia.

Claudia: Goizeko partiduan motibazioa apur bat galdu genuen, baina eguerdian buelta eman genion eta hurrengoa irabazteko indarrak hartu genituen.

Uste duzue emakumeek waterpoloan lortutako lorpenei garrantzi nahikoa ematen zaiela?
Claudia: Nik uste sare sozialetan ikusgarritasun nahikoa lortzen ari dela gure taldea. Hala ere, oraindik lan asko dago egiteko. Izan ere, Gipuzkoa maila waterpoloko emakumeen bi talde daude bakarrik. Guk uste dugu Gipuzkoan bertan waterpolo talde gehiago sortzeko aukera dagoela eta horrela talde gehiagoren aurka jokatzeko aukera izango genuke.

Amane: Waterpoloa gero eta kirol ezagunagoa da, baina emakumeen artean oraindik gehiago zabaldu behar da. Talde berria sortzea beharrezkoa da Gipuzkoa mailan nesken waterpoloa desagertu ez dadin eta gero eta kirolari gehiago izan gaitezen.

Zer beharko litzateke kirol hau neskentzako erakargarriagoa izan dadin?
Amane: Nire ustez waterpoloa eskoletara hurbiltzea kirol hau ezagutarazteko lagungarria izan daiteke. Eskoletan, beste kirol batzuk probatzen ditugu, esaterako, futbola, saskibaloia edo eskubaloia. Beraz, uste dut horiekin batera beste kirol batzuk erakustea egokia izan daitekeela bakoitzak nahiago duen kirola aukeratu dezan.

Claudia: Amanerekin guztiz ados nago, waterpoloa ez diren beste kirol batzuei ikusgarritasun gehiago ematen zaielako. Adibidez, igeriketa nahiko kirol antzekoa da, baina waterpoloarekin alderatuta ezagunagoa da. Ikasleak igerilekura igeri egiten ikasteko ekartzen dituzten bezala, uste dugu hemen igerilekuan egiten ditugun kirolak ikusteko ekar ditzaketela. Beraz, eskoletatik ere lan hori egitea funtsezkoa da.

Hala ere, Urgara klubean taldekide berriak lortzeko **ekintzak antolatzeko ahalegintzen zarete?**
Amane: Bai, adibidez, uda honetan klubak ludoteka bat antolatuko du uztailaren 4tik 29ra. 7 eta 12 urte bitarteko haurrentzat pentsatutako ekintza da eta goizez egingo da.

Claudia: Hori da. Urgara Txingudi waterpolo klubak proposatutako ludotekan neska-mutilek waterpoloa ezagutzeaz gain, jolasez eta ingelesez egingo diren ekintzez gozatu ahalko dute. Ludoteka Azken Portu kiroldegian egingo da eta izena eman nahi dutenek klubaren sare sozialetan aurkituko dute beharrezko informazio guztia.

Liga amaituta, udaberriko txapelketa hasiko duzue orain?
Claudia: Bai, Liga bukatu da baina oraindik udara iritsi arte hilabete batzuk falta dira, beraz, guk bitarte horretan gogor entrenatzen jarraituko dugu. Entrenamenduetan lan ona egiten ari gara, beraz, udaberri polita dugu aurretik.

Amane: Liga bukatu ostean, uste dugu azken partidu hauetan ere garaipena lortzea denboraldia sentsazio politekin amaitzeko aukera izan daitekeela.

Iñaki Cavero, Bidasoa Iruneko jokalaria:

"Ohore handia da etxeko taldean jokatu ahal izatea"

"Aspaldi ez genuela Artalekuko harmaila hain beteta ikusten"

"Ez da ahaztu behar denboraldian zehar jokatu diren txapelketa guztietan parte hartu dugula"

Bidasoa Irunek denboraldiko helburu garrantzitsuenetako bat lortu du: hurrengo denboraldian Europan jokatzeko aukera. Jokalari taldeak denboraldi osoan zehar egindako lanaren emaitzak ikusi dira azkenean. Iñaki Caverok denboraldia amaitu aurretik taldeak dauzkan azken erronkak errepasatu ditu.

Granollersen aurkako partiduan emaitza garrantzitsua lortu zenuten. Pozik zaudete lorpenarekin?
Aspaldi ez genuela Artalekuko harmaila hain beteta ikusten. Egia esan, oso partidu polita izan zen eta gainera, garaipena lortu genuen. Partidua irabazteak Europako txartela eman digu datorren urterako.

Garaipen garrantzitsu hori etxean lortzea oraindik bereziagoa izan zen?
Bai, oso berezia izan zen. Irabaztea ondo dago, baina atzetik gure zaleen eta hainbeste jenderen babesa dugunean politagoa da dena. Uste dut bai partidu horretan zein denboraldian zehar oso maila ona eman dugula. Ez da ahaztu behar denboraldian zehar jokatu diren txapelketa guztietan parte hartu dugula, Asobal Kopa falta zaigu, baina Errege Kopa eta Europan jolastu dugula ere ezin dugu ahaztu. Azken batean, helburua hori da: emaitzarik onenak lortzea, baina baita denboraldian zehar mantentzea.

Aurtengo denboraldian partidu asko izan dituzue, tartean baita lesioak ere. Hala ere, taldeak ondo lan egin du?
Taldean errotazio sistema erabiltzen dugu eta horri esker denboraldia aurrera ateratzea lortu dugu. Jokalariren batek lesioren bat izan duenean, besteren batek ordezkatu du. Lan egiteko era hori gure erregulartasuna mantentzeko ezinbestekoa izan dela.

Taldearen lanaz gain, zu zeu ere pozik zaude denboraldian zehar emandakoarekin?
Bai, ni ere oso pozik nago. Gainera, jokalari onenaren saria eman didate eta, azken batean, urtean zehar egindako lan guztiarentzako beste errekonozimendu bat da. Denboraldian zehar nire burua ondo ikusi dut, baina zaleek, gainontzeko jokalariek edo kazetariek egindako esfortzua aitortzen dizutenean bereziagoa da. Aurretik jokalari berdinek irabazi izan dute sari hori, adibidez, Kauldik, Rodrigok eta Xoanek, beraz, pixka bat aldatzea tokatzen zen. Beraz, oso pozik nago bai denboraldiko lorpenengatik eta baita trofeoarengatik ere.

Hurrengo helburua Asobal ligan txapeldunorde izatea da, ezta?
Bai. Bathco taldearen aurkako partiduan ez genuen nahi genuen emaitza lortu. Dena den, oraindik hiru partidu geratzen zaizkigu, bi etxean eta bat kanpoan. Nik uste talde guztiak denboraldia ahalik eta ondoen bukatu nahi duela. Jokatzeko dauzkagun hiru partidu horietan maila gorena eman behar dugu denboraldia behar bezala bukatzeko.

Denboraldi luzea izaten ari da. Amaieran denboraldia borobiltzeko indarrak ateratzea erraza da?
Lehen aipatu dugun moduan, otsaila bereziki gogorra izan da. Izan ere, partidu asko izan ditugu. Hala ere, behin honaino iritsita ez dago atzera bueltatzetik, beraz, kexarik gabe aurrera egin behar dugu, azken txanpa gelditzen zaigulako bakarrik. Indarrak edozein lekutik atera behar ditugu eta helburua denboraldia ondo amaitzea da, ahal den heinean lesiorik gabe, noski.

Zuk gainera datorren denboraldirako kontratua luzatzea erabaki duzula jakinarazi duzu. Etxeko taldean pozik zaude?
Pribilegio handia da etxeko taldean jokatu ahal izatea. Oso eroso sentitzen naiz etxean jokatzeko aukera izanda, azken batean, nire etxea da. Ez bakarrik etxean nagoelako, baizik eta taldeak ere helburu handinahiak dituelako eta oso maila onean dagoelako. Ni taldera iritsi nintzenean bigarren mailan zeuden, beraz, bertan egindako ibilbidean taldearen garapena ikusi ahal izan dut. Hasierako urteak egungo mailarekin alderatuz gero aldea sekulakoa da, beraz, oso polita izan da garapen horren lekuko izatea.

Denboraldi honetan harrobiko jokalariak ere taldean jokatzen hasi dira. Nola ikusten duzu taldearen etorkizuna?
Ondo. Lesioak daudenean, errotazioen bitartez jokalari berriak sartzen dira taldean. Izan ere, jendea falta bada ere, partiduetarako taldea osatzeko beharrezkoa da eta gainera kalitatezko jokoa eskaini dezakeen taldea eduki behar da. Uste dut jokalari berriek ere oso denboraldi ona egin dutela, asko lagundu digute eta maila ona dutela erakutsi ahal izan dute. Denboraldian zehar ere ikusi da taldeak bilakaera izan duela. Harrobiko jokalariak hasieran soilik entrenamenduetara etortzen hasi ziren eta partiduak jokatzen amaitu dute denboraldia. Izan ere, hori klubaren helburuetako bat da.

Erakusketa berria Oiasson: “Erraldoien bizkarren gainean. Euskal arkeologiaren historia”

Maiatzaren 7an erakusketa berri bat iritsi zen Oiasso Museora, “Erraldoien bizkarren gainean. Euskal arkeologiaren historia” izenekoa hain zuzen. Erakusketak euskal arkeologiaren historia errepasatzea dauka hizpide, XVIII. mendean emandako lehen hastapenetatik gaur egun arte. “Erraldoien bizkarren gainean” izenburuarekin, erakusketaren antolatzaileen esanetan, arkeologo haiek eginiko lana errekonozitu nahi da, beren ikerketak direlako gaur egungo ezagutzaren oinarria. Chartreseko Bernard fraideak XII. mendean zioenez, “erraldoien bizkarrera igotako ipotxak gara, urrutikoa ikusteko gai bagara ez da bista ona dugulako, beren bizkarren gainean gabiltzalako baizik”. Gure erraldoietako hiru, Jose Migel Barandiaran etnologoa, Telesforo de Aranzadi antropologoa eta Enrique Eguren geologoa dira, besteak beste, orain dela 100 urte, gaur egun mundu mailan erreferentzia den Santimamiñeko kobazuloa arkeologikoki ikertzeko hautua egin zutenak. Ezin dugu aipatu gabe utzi María Ángeles Mezquíriz doktorea, 1950eko hamarkadan, Nafarroako Museoko zuzendaritza hartu eta erakundea Nafarroako ikerketa arkeologikoen erdigune bihurtu zuen emakumea. Intelektual hauek beren jakinduria beste pertsona batzuei helarazi zieten, eta hauek, aldi berean, gazteago batzuei, gaur egun arte.

Erakusketa Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Erkidegoko zenbait museo eta material arkeologiko kontserbatzeko zentroren elkarlanaren ondorioa da: Bilbon dagoen Arkeologi Museoa (proiektuaren koordinatze lanak bere gain hartu dituenak), Arabako Bibat Arkeologia Museoa, Gordailua Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ondare Bildumen Zentroa, Nafarroako Gobernuko Vianako Printzea Erakundea eta Oiasso Museoa. Edukiak eta piezen aukeraketa aipaturiko arkeologia zentro hauetako teknikariek burutu dituzte. Ia hirurehun urtetan zehar egindako ikerketak, gizartean sortzen doazen aldaketa sakonen isla diren kezka eta jakin nahia asetzen saiatu dira. Erakusketan aditzera ematen den bezala, kleroko edo burgesiako kide ziren erudituen arkeologiarako afizioa, XX. mende hasieran iragana ezagutzeko zientzia eta XXI. mendean oraina ulertu eta etorkizuna argitzeko diziplina zientifiko bilakatu zen. Erakusketa bost bloketan banaturik dago. Bertan arkeologiaren bilakaera eta garapena dago ikusgai, bere hastapenetatik, orain mende batzuk atzera, gaur egunera iritsiz. Garai haietatik hona metodo eta ezagutza teknikak aldatuz joan dira, baita arkeologoen generazio ezberdinek iragana aztertzeko orduan planteatu dituzten galderak ere, ikertzaile hauen garaiko kezka sozial eta interesen arabera.

Erakusketa euskal arkeologiak izandako fase ezberdinetan banatuko da, bloke bakoitzak fase horietan aurkitutako material interesgarriak dituelarik erakusgai. Osotara 100 pieza baino gehiago dira eta topaturiko dataren arabera antolaturik daude. Aldi berean, eskaintzen den ibilbide honetan garai bakoitzean ondareak izan duen trataera ere atzeman daiteke. Erakusketari sarrera honako pieza honek ematen dio: Iruñako harresian 2004ko indusketa arkeologikoetan agertutako erromatar ara bat (HEp. 16, 2007, 484). Pieza koroatua dago, oinarrian lau aldetara moldurak ateratzen zaizkio eta ikerlariek K.o. I. mendean datatu dute bertan agertzen den D(is) M(anibus) idazkia aztertu ondoren. Beraz jainko edo jainkosa bati eginiko botozko inskripzio bat izan zen. Ordea, bi mende geroago inskripzioa berrerabili zutela ikusten da, Aelio Attioren omenezko hileta testu bat gehitu bai zitzaion “ex rogatu possuit” formula idatziarekin batera. Esan bezala, ara Iruñako Antzinaroko harresian txertatuta topatu zen. Beraz, ez da kasualitatea ara hau erakusketaren sarrera gisa aukeratu izana, pieza honen ibilbide historikoak eta erakusketak helarazten digun mezuak nolabaiteko antzekotasuna dutelako. Hau da, aipaturiko pieza epigrafikoa beste helburu batzuetarako sortu bazen ere, sendoa eta berria zen beste zerbait sortzeko berrerabili zen: Pompelo hiri erromatarreko harresia, III. mendeko tentsio eta krisi garaiko beharrei erantzuteko eraikia. Ikertzaile eta arkeologoek gauza bera egiten dugu, gure aurrekoek ikertutakoaren bitartez zimendatzen ditugu gure ezagutzak.

Erakusketa Oiasso Museoan irailaren 25a arte izanen dugu. Sarrera doakoa da eta gure ordutegiak honako hauek dira:

-Maiatzaren 31a arte: asteartetik igandera: 10:00-14:00. Ostiral eta larunbatetan arratsaldez ere zabalik: 16:00-19:00.

-Ekainaren 1etik aurrera: asteartetik larunbatera: 10:00-20:00. Igandeak: 10:00-14:00.

Anima zaitez!

Jokin Lanz

ESTUDIO FOTOGRAFÍA
GO VER™
Fernando Vergara
argazkilaria
Letxumborro hiribidea 100.2º
20305 Irun
943 840 113 - 647 930 484
www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com

ELATZETA HH5

Denbora-pasak

7 hitz: Irungo plazak

H	E	P	L	C	B	M	Q	S	G	D	T	R	X
J	U	S	M	S	G	R	U	E	B	T	K	S	C
J	D	H	L	I	Q	E	A	O	L	L	J	U	K
Z	Y	C	R	E	L	E	R	R	C	M	G	F	L
A	F	P	S	C	U	I	L	R	B	D	N	F	G
B	V	L	H	N	R	H	Y	J	O	I	I	E	U
A	U	M	X	A	A	E	V	N	S	M	U	D	R
L	E	Q	N	A	N	R	V	Z	K	W	E	N	D
T	K	M	T	X	Z	A	F	L	H	M	N	S	A
Z	K	S	T	Y	A	Q	T	R	M	Z	A	D	N
A	Y	P	Q	C	R	A	S	O	P	V	F	P	I
U	D	W	U	S	A	E	D	Q	R	H	V	D	B
K	M	E	N	M	N	O	U	Q	D	V	D	Q	I
D	T	X	A	N	A	L	E	T	A	M	G	X	A

Zabaltza, Urdanibia, Erromes, Anzaran, Eihera, Txanaleta, Arbiun.

	6		2	3		4		
5	8			9			1	
		4		7				6
8		9		1		5		
	4							
6			9				8	3
4				6		9		
		5						4
7			4	2	1			5

EUSKARAZ, IRUNEN BARRENA

Irundar itzontzi

Irundar itzontzi
nontziñan gaur zortzi
Ondarribi´ko portuan
zenakan goguan
arto pixka bat kolkuan.

Irungo S.R.A. andereari jasoa (1959ko). Oiartzuarrek kantatzen zituzten bertso hauek Irun aldekoak xirikatzeko.

(El Bidasoa, 1959-X-17)

Esaerak

Katua lo dagon bittarte, arratoya jayak.

Irungo S.R.A. andereari jasoa (1959ko uda).
(El Bidasoa, 1959-X-17)

Iturria: Nikolas Alzola Gerediaga
Euskaraz, Irunen barrena

SAN VICENTE DE PAUL DBH1

HAURDUNALDI SUBROGATUA

Lehenengo eta behin, haurdunaldi subrogatua zer den azalduko dut. Haurdunaldi hau, ugalketa lagunduko metodo bat da non umea erditzen duen emakumea ez den bere ama izango. Gainera, salerosketaren ezaugarriak dituen prozesu bat da, emakume pobreetaz baliatu daitekeena, bikote dirudun batek bere gustura jaioko den ume bat izan ahal izateko.

Jarraian praktika honen aurka egoteko ditudan arrazoiak azalduko ditut.

Pertsona askoren ustez, edonork du guraso izateko eskubidea, baina esan beharra dago, teknikoki hori gaizki adierazita dagoela. Zehatzago esanda, Giza Eskubideek diote ume guztiek dutela haien gurasoekin hezteko eskubiea, baina erakunde horrek ez du jasotzen edonork ume bat izateko eskubidea duela dioen idea.

Lehen aipatu dudan bezala, umea erosiko duten pertsonek, hura jaio baino lehen haien gustura moldatu dezakete. Hau da, umea ezaugarri zehatz batzuekin jaiotzea aukeratu dezakete. Ez hori bakarrik, izaki hori espero ez zen baldintza batekin jaiotzen bada, itzultzeko aukera izango lukete erosleek, produktu bizigabe bat balitz bezala.

Eta hemen botatzen du galdera bat, organoen salerosketa baimenduta ez badago, zergatik hartzen da normaltzat umeen salerosketa?

Adituek diotenez, arrisku psikiko eta emozional handia dago jaioberrientzat eta haurdun dagoen edo egon den emakumearentzat. Emakume baten gorputza berak ernalarazi ez duen enbrioi bat eramateko sortua ez baitago. Honi gehitu behar zaio, hartu behar dituzten sendagai dosi handien eta hormonen ondorioz, etorkizunean gaixotasun batzuk garatu daitezkeela; hala nola, diabetesa eta hipertentsioa.

Aurreko guztia laburbilduz, zera esan daiteke: haurdunaldi subrogatuak Giza Eskubideen aurka egiten duela, emakumeak makinatzat eta jaioberriak salgaitzat hartzen dituelako. Ondorioz, umeak izatea desiratzen duten pertsonek adoptatzea dute aukera hoberena. Izan ere, adoptatuz umearen ongizate psikiko eta fisikoaz arduratzen ari dira; prozesu guztian zehar haurra ezagutu aurretik maitatuko dutela jakinda, aurreiritzirik eta baldintzarik gabe. Eta nire ustez, balore horiek izanda, guraso izateko prest egongo dira.

Saioa Amonarriz Pérez
4. DBH

Cristina Juaniz, Micrisantemo artista:

"Asko gustatzen zait Irunen muralak egitea, uste baitut kolore asko behar duen hiria dela"

"Artista batentzat iruditzen zait nahiko zaila dela artistikoki norbera aurkitzea"

Cristina Juaniz artistak "Micrisantemo" goitizenarekin sinatzen ditu bere sorkuntzak. Artista sena txikitatik sentitu arren, pandemia ostean hasi zen artista lanak eginez bere bizitza irabazten. Dagoeneko hiriak berak egindako bi horma-irudi dauzka, bata Belaskoeneako Gabarrari plazan eta bestea, berriz, El Rancho Haurtxokoan. Micrisantemo artistak azaldu duenez horma-irudiak egiteko mandatu gehiago jasotzen ari da.

Noiztik sentitzen zara artista?
Margotzea eta marraztea txikitatik gustatu izan zait. 16 urte bete arte pintura klaseetara joan naiz. Ez nuen inoiz horretan aritzeko asmorik, baina aurrerago Bartzelonan ilustrazioa ikastea erabaki nuen. Beti hartu dut artea zaletasun bat balitz bezala. Duela oso gutxi hasi nintzen artista gisa modu profesionalagoan lan egiten. Pandemiak guztiok aldatu gaitu eta horren ostean ni neu gauza berriak egiten hasi naiz. Artista sentitzen hasi nintzenean nire kontura zerbait saltzen hasi bainintzen eta artista lan garrantzitsuago batzuk lortu nituenean.

Jada hiriko horma-irudi askotan zure sinadura ikusi dezakegu, ezta?
Bai, baina, egia esan, oso denbora gutxi daramat muralak margotzen. Pandemia baino lehen margotu nuen bat Bitaminek eskaini zidan aukera bati esker, baina zerbait informalagoa izan zen. Pandemiaren ondoren, lehen enkargua jaso nuen, eta El Rancho izeneko edizioan mural bat egiteko eskatu zidaten, El Pinarreko parkearen alboan. Ezin nuen sinetsi. Deia jaso baino lehentxeago erakusketa bat egin nuen Gaztelekuan M8ari buruz. Erakusketan ikusitakoa gustatu zitzaien eta horregatik jarri ziren nirekin harremanetan. Ez nuen esperientzia handirik, eta urduri samar jarri nintzen, nahiz eta oso pozik egon nintzen enkargua jaso nuelako. Gero, bigarren horma-irudi bat eskatu zidaten Gabarrari plazarako, eta oso pozik nago emaitzarekin.

Zein da Irunen margotu dituzun horma-irudien gaia?
Ranchoaren kasuan, Haurtxoko gisa eta scout elkarte baterako erabiliko den eraikina denez, oso koloretsua izatea eta animaliatxoak izatea nahi nuen, haurrentzat didaktikoa izan zedin. Asko gustatzen zait Irunen muralak egitea, uste baitut kolore asko behar duen hiria dela. Izugarri gustatzen zaizkit paisaia tropikalak, landare eta fauna askorekin, eta hori guztia Arrantxuko hormetan sartu nahi izan nuen. Gabarrari plazan, adin handiagoko biztanleria bizi den eta gune poligonalago batean dagoenez, landarediari garrantzi handia eman nahi izan nion nire sorkuntzan, hiriko alde landatarrenera hurbiltzen saiatzeko. Gainera, kasu honetan belaunaldi desberdinetako 3 emakume gehitu nahi izan nituen, eta esku batzuk marraztu, gure indarraren eta lantzen dugun guztiaren ordezkari.

Artista gisa aukera handia da zure lana kalean modu iraunkorrean erakutsi ahal izatea?
Bai, noski. Oso harro nago kalean zerbait egin ahal izateaz, jendeak ikus dezan eta estimatu dezan. Uste dut oso harrera ona izan duela. Belaskon beldur handiagoa ematen zidan auzotarren erreakzioak, adin handiagoko jendea izaki, ez ulertzerik bazeukatela uste bainuen. Ordea, auzoko andreen lagun egin naiz, eta asko gustatu zaie nire lana.

Horma-irudiez gain, beste lan batzuk ere egiten dituzu artista gisa?
Oraintxe bertan enkarguz egiten dut lan. Ehunekin lan egiten dut; adibidez, eskuz margotzen ditut jakak, neure diseinuekin. Egurrezko esku artikulatuak ere egiten ditut. Bestalde, animalien benetako burezurrak margotzen ditut, hala nola ahuntzenak edo behienak.

Artista izanik, erraza al da marka propio bat sortzea eta gainerakoetatik bereiztea?
Ez, egia esan, nahiko zaila da. Artista batentzat iruditzen zait nahiko zaila dela artistikoki norbera aurkitzea eta identifikatuko zaituen estilo bat garatzea. Nire lanaren barruan, uste dut jaken pertsonalizazioa egiten dudan gauzen artean arruntena dela. Horrela, eskuak eta burezurrak lantzen saiatzea erabaki nuen, uste nuelako objektu original samarrak zirela, izan ere, gainontzeko artistek ez dute horrelako gauzekin lan egiten. Horri esker, uste dut lortu dudala nire estilo artistikoa aurkitzea, nahiz eta esan dizudan bezala ez da erraza izan. Horregatik erabaki nuen bi izenak nahastea, eta horrela sortu zen "Micrisantemo".

Zertan ari zara lanean gaur egun? Baduzu beste proiektu batzuk?
Egia esan, beste horma-irudi bat sortzeko lanean ari naiz. Hunkituta nago gauzak nonahi ateratzen ari zaizkidalako eta oso pozik nago. Noiz hasiko zain nago, baina horma-irudi bat egingo dut Plaiaundiko ikastetxeko atean. Ikastetxeko irakasle bat nirekin harremanetan jarri zen Ranchoko lana egiten nuen bitartean. Gainera, esan zidan egiten ari zenaren oso antzeko beste proposamen bat zuela, Plaiaunditik gertu egonik txoriekin zerikusia zuen zerbait nahi baitzuten. Sanmartzialei begira ere badut beste proiektu bat, baina ez dagoenez oso zehaztuta, nahiago dut ezer ez aurreratu.

irun
www.irun.org/igazte
gazte
informazioa

CBA Kultur Gunea
943 50 54 44
igazte@irun.org
607 77 11 73
www.irun.org/igazte

Kontzertua "Walls"

Irungo Udaleko Gazteria Arloaren ekimenez, datorren larunbatean, maiatzak 28, 18:00etatik aurrera, GazteARTEan Eszenatokia jarriko da martxan, Ficoban: musikaren munduko inguruko talentu gaztearen jardunaldi bat. Hitzordua doakoa izango da, eta goraka ari diren etorkizun handiko artistak bilduko dira erakustazokako agertokian, irundarrak, Irunen bizi direnak edo ingurune hurbilekoak: Kepa eta Laina, Walls eta DJ Lea.

Eguna: Maiatzaren 28a.

Tokia: Ficoba

18:00: Ate irekiera

18:30-19:30: KEPA/LAINA

19:30-21:00: WALLS

21:00-22:00: DJ LEA

Hitzordua doakoa izango da, baina gonbidapenak Irungo Udalaren webgunearen bitartez eskuratu beharko dira.

Ikasketa gelaren ordutegi berezia

Maiatzaren 7tik ekainaren 28ra bitartean CBA liburutegiak bere ikasketa gelaren ordutegia zabalduko du.

Horrela, epe horretan ikasketa gela ondoko ordutegian egongo da irekia:

Astelehenetik ostiralera: 9:00etatik 20:00etara.

Larunbata: 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 20:00etara.

Igandea: 9:00etatik 13:00etara.

Gainontzeko zerbitzuek ohiko ordutegia izango dute.

Gainera, CBAren bigarren faseko proiektuaren barruko lehenengo lanak direla-eta, liburutegi eta kulturgunea berrantolatu da. Maiatzaren 9tik aurrera, ikasketa gela gazteen gunera lekualdatu da, eta IGazte, berriz, ikasketa gelako egungo mintegietan kokatu da.

iGazteren bulego aldaketa

CBA liburutegia handitzeko lanak direla eta Irungo iGazte bulegoa lekuz aldatu da. Bulegoa gazteen gelatik atera eta aurretik ikasketa gelako mintegiak zeuden tokira eraman da. Beraz, liburutegian sartu eta ezkerrean topatu ko duzu gazte informazioko bulegoa.

Telefonoa: 943 50 54 44.

Whatsapp: 607 771 173.

Emaila: IGazte@irun.org.

Ordutegia:
Astelehenetik ostiralera: 11:00etatik 13:30era.

Asteazkenetan: 17:00etatik 19:30era, eta astelehen arratsaldeetan aldez aurretik ordua hartuta.

UDAGIRO 2022

Udagiro udako oporretan beste herrialde edo erkidego batzuetatik etorri berri diren haur eta gazteentzako antolatu diren euskara eskolak dira, euskararekiko duten lotura zeharo ez eteteko eta euskarara modu positiboagoan hurbiltzeko.

UDAgiro

Ikastaroak: uztailaren 8tik 29ra eta abuztuaren 4etik 26ra

Ordutegia: 9:30etik 11:30era.

Non: Herri Jakintza euskaltegia (San Juan Plaza)

Izen emateko epea: maiatzaren 5etik 24ra

Baldintzak:
Irunera etorri izana 2020/21 edo 2021/22 ikasturtean eta bertako ikastetxeren batean eskolatuta egotea. (*tokirik egonez gero, aurreko urteetakoak ere hartuko dira kontuan).

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako edota Bigarren Hezkuntzako ikaslea izatea.

Lehentasuna izango dute Hizkuntza Indartzeko Programan -HIP- parte hartzen duten ikastetxe eta institutuek.

Eskatzaileek ikastaro/hilabete bakarrean parte hartzeko aukera izango dute. (*tokirik egonez gero, bi txandetan parte hartzeko aukera aztertuko da).

Denbora laburreko boluntariotza Estoniako jaialdi batean

Datak: Abuztuaren 1etik 8ra.

Zer: Kanpamentua Marjamaan (Estonia) egingo da. Kanpamentu honen ideia nagusia zeregin praktiko desberdinetan laguntzea da. Boluntarioei eskatzen zaie antolaketan eta zuzendaritzan laguntzea hainbat lan praktiko eginez. Honek garbiketa eta eskuzko lan asko ekarriko ditu. Baina espero da, halaber, boluntarioek lagundu egingo diotela Jaialdiari beren kultura nazionala, musika eta janaria bertaratzen, baita jolas jarduerak antolatzen ere. Egon prest asteburuan ordu batzuk lan egiteko!

Prezioa: 290 euro.

Informazio gehiago: Yeseuropa.org



MAIATZAREN

19a

Zure abenturaren bila

Zer: "Lusitaniatik GurpilEKINbidairi" Cadizen hasi eta Gernikan bukatutako bidaiaren laburpena.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Hizkuntza: Euskara.

21a

Antzerkia

Zer: "Loop" ikuskizuna Aracaladanza konpainiaren eskutik.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: 8 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

21a

Jardunaldi grekoa

Zer: Oiasso museoak antolatutako VI. Jardunaldi grekoa María Eugenia Díaz Pascualen "Atenasko akropolia mendeetan zehar" hitzaldiarekin eta "Arabim. Las almas de las estatuas" filmarekin.

Non: Oiasso museoan.

Ordua: 19:00etan.

Sarrera: Gonbidapenarekin.

27a

Antzerkia Amateur

Zer: "Entremeses" antzezlana Zuentzat elkartearen eskutik.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Sarrera: Gonbidapenarekin.

Gonbidapenak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

28a

Antzerkia

Zer: "Leihoak" antzezlana Teatro Paraisoren eskutik.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: 5 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

Hizkuntza: Euskaraz.

29a

Kontzertua

Zer: Aldapeko Basque Latin Jazz euskal musika tradizionala erritmo latinoekin eta jazz harmoniekin uztartzen duen musika taldea da.

Non: Amaia Kultur Zentroan.

Ordua: 19:00etan.

Prezioa: 5 euro.

Sarrerak: Internet bidez, Irungo turismo bulegoan edo antzokiko leihatilan emanaldiaren egunean bertan.

Denbora-pasen emaitzak



1	6	7	2	3	5	4	9	8
5	8	2	6	9	4	3	1	7
9	3	4	1	7	8	2	5	6
8	7	9	3	1	6	5	4	2
2	4	3	8	5	7	1	6	9
6	5	1	9	4	2	7	8	3
4	2	8	5	6	3	9	7	1
3	1	5	7	8	9	6	2	4
7	9	6	4	2	1	8	3	5

360°

Estudio Goverretik sektore profesionalera zuzendutako argazkilaritza digitaleko marka berria aurkezten dugu.

Katalogo, webgune, sare sozial eta "take away" zerbitzua eskaintzen duten enpresentzako argazkiak egiten ditugu.

ZURE ENPRESAREN IRUDIAK GARRANTZI HANDIA DU.

Bisitatu gure webgunea!
www.fdefoto.es

-GASTRONOMIKOA
-PRODUKTUAK
-KATALOGOAK
-PUBLIZITARIOA
-EKITALDIAK
-INMOBILIARIAK
-KORPORATIBOA
-2D 360º-NOBEDADEA!

fdefōto

LETXUNBORRO HIRIB. 100 , 2ºA
20305 IRUN - GIPUZKOA -
hola@fdefoto.es
fdetofo.es
943 840 113 - 647 930 484